# 2001EKO EZAUGARRI METEOROLOGIKOAK
# CARACTERÍSTICAS METEOROLÓGICAS DEL AÑO 2001

## RESUMEN ANUAL

El 2001 puede considerarse un año seco con precipitaciones por debajo de la media anual, en especial en las áreas de montaña y en la zona más oriental de Gipuzkoa. Así, la precipitación acumulada en Derio, en el área de Bilbao, es de 1008 $l/m^2$, frente a los 1240 $l/m^2$ de valor medio. En torno a San Sebastián la diferencia es aún mayor, con una precipitación anual en Lasarte de 946 $l/m^2$ frente a los 1580 $l/m^2$ de media en esta zona. En la Llanada Alavesa se han recogido 609 $l/m^2$ en Salvatierra, mientras que la precipitación media es de 800 $l/m^2$. En áreas de montaña, donde la precipitación media anual supera los 2000 $l/m^2$, se registran precipitaciones entre 1100 $l/m^2$ y 1552 $l/m^2$, como valor máximo el recogido en el embalse de Añarbe. Las zonas con mayor pluviometría son en general las zonas montañosas del interior de Bizkaia y Gipuzkoa, y el macizo Jata–Sollube en la costa de Bizkaia, donde se han totalizado 1520 $l/m^2$. La zona menos lluviosa es el sur de Alava, donde no se han llegado a 400 $l/m^2$.

El número de días de precipitación mayor o igual a 0,1 $l/m^2$ es análogo a la media, variando desde los 115 de Zambrana a los 206 de Ereñozu. En la mayoría de las estaciones de Bizkaia y Gipuzkoa ha habido entre 160 y 180 días de precipitación. En la Llanada Alavesa el número de días es menor, entre 140 y 160.

Las precipitaciones más intensas, acompañadas de pedrisco, se producen durante tormentas veraniegas, destacando los más de 20 $l/m^2$ en diez minutos registrados en Urkiola, los 19 $l/m^2$ en San Prudentzio (Alto Deba) o los 17,8 $l/m^2$ en Altube en el mismo período. El día más lluvioso del año no ha superado los 100 $l/m^2$ en ninguna de las estaciones, registrándose un valor próximo en el Embalse de Añarbe el 5 de mayo, cuando se registran pequeñas inundaciones en esta área.

Respecto a la temperatura media anual, podemos afirmar que es un año normal. Así, la temperatura media anual en Derio es de 14 ºC, en Lasarte de 14,2 ºC y en Salvatierra de 11,2 ºC, mientras que los valores climatológicos medios en estas localidades son de 14 ºC, 14,4 ºC y 11,6 ºC respectivamente.

Las temperaturas mínimas absolutas registradas son muy bajas en todo el territorio, especialmente en Alava, con valores que oscilan entre –11 y –15 ºC. En puntos cercanos a la costa como Muxika, Oiartzun o Lekeitio las temperaturas mínimas estuvieron entre –6 y –8 ºC, cercanas a mínimas históricas. Estas temperaturas mínimas se registran en diciembre, después de un año con heladas escasas y débiles.

Las temperaturas máximas se alcanzan en junio y en agosto superándose prácticamente en todos los puntos los 35 ºC. La máxima temperatura, registrada en el año es de 40 ºC en la estación guipuzcoana de Alegia el día 25 de agosto, alcanzándose valores próximos en el resto de las estaciones del interior de Bizkaia, Gipuzkoa y Alava.

Los valores de humedad relativa media anual están dentro de los valores climatológicos medios, alrededor del 75 % en la mayoría de los lugares. Únicamente en puntos de montaña se superan o aproximan al 90 % de humedad relativa media anual.

URTEKO LABURPENA

2001 urtea lehorra izan da, prezipitazioak urteko batez bestekoen azpitik ibili baitira, batez ere mendi aldeetan eta Gipuzkoako ekialdean. Horrela bada, Derion (Bilbo aldean) pilaturiko prezipitazioa 1008 l/m$^2$ izan da iaz, eta batez bestekoa 1240 l/m$^2$-koa da. Donostia inguruan, berriz, alde handiagoa dago, pilatutako prezipitazioa 946 l/m$^2$ izan baita Lasarten, eta batez bestekoa 1580 l/m$^2$ da inguru horretan. Arabako lautadan 609 l/m$^2$ jaso dira Agurainen, eta batez bestekoa, 800 l/m$^2$. Mendi aldean urtean pilatutako prezipitazioa, batez beste, 2000 l/m$^2$-tik gora ibiltzen da, eta 1100 l/m$^2$ eta 1552 l/m$^2$ arteko balioak erregistratu dira; azken hori Añarbeko urtegian. Prezipitaziorik handiena Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdeko mendi inguruetan eta Bizkaiko kostaldeko Jata-Sollube mendilerroan erregistratu da, eskuz egindako neurketaren arabera, 1520 l/m$^2$ pilatu baitira. Prezipitaziorik gutxien, ostera, Araba hegoaldean dugu: aurten ez da iritsi 400 l/m$^2$-ko baliora.

0,1 l/m$^2$-ko prezipitazioa edo gehiago erregistratzen duten egunen kopurua, batez bestekoaren parekoa gertatu da. Gutxiena, Zambranan 115, eta gehiena, Ereñozun 206. Bizkaiko eta Gipuzkoako estazio gehienetan prezipitazio egunak 160 eta 180 artean ibili dira. Arabako lautadan prezipitazio-egun gutxiago izan dira, 140 eta 160 artean.

Euri jasa gehienak, askotan harriabarrekin batera, udako ekaitzetan gertatu dira. Azpimarratzekoa da Urkiolan hamar minutuko tartean erregistraturiko 20 l/m$^2$ baino gehiagoko balioa, Elorregiko (Debagoieneko) 19 l/m$^2$ eta Altuben, tarte berean jasotako 17,8 l/m$^2$. Urteko egunik euritsuenean ezein estaziotan ez da 100 l/m$^2$ baino gehiago erregistratu, eta Añarbeko urtegian inguruetan uholde txikiak gertatzen direnean soilik erregistratu ohi dira antzeko balioak.

Urteko batez besteko tenperaturari dagokionean, berriz, urte normala izan dela aitortu behar da. Derion urteko batez besteko tenperatura 14 ºC-koa izan da, Lasarten 14,2 ºC-koa eta Agurainen 11,2 ºC-koa; eta herri horietako urte arteko batez bestekoak honakoak dira, hurrenez hurren 14 ºC, 14,4 ºC eta 11,6 ºC.

Tenperatura minimo absolutuak oso baxuak izan dira Erkidego osoan, eta, batez ere, Araban, –11 eta –15 ºC artean ibili baitira. Kostatik gertuko zenbait lekutan, tenperatura minimoak –6 eta –8 ºC artekoak izan ziren, minimo historikoak, ezbairik gabe. Tenperatura horiek abenduan erregistratu ziren, izozte-egun gutxi eta izotz urriko urte baten amaieran.

Tenperatura maximoak, ekainean eta abuztuan erregistratu ziren, eta ia leku guztietan gainditu zen 35 ºC-ko tenperatura. Urteko tenperaturarik altuena, 40 ºC, Alegian (Gipuzkoan) erregistratu zen abuztuaren 25ean, eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako barrualdeko gainontzeko estazioetan ere, antzeko tenperaturak erdietsi ziren.

Urteko batez besteko hezetasun erlatiboaren balioak leku gehienetan batez besteko balio klimatologikoen barruan daude, hau da, % 75 inguru. Mendi inguruan soilik erdietsi edo gainditzen da % 90eko urteko batez besteko hezetasun erlatiboa.

Los valores más bajos de irradiación solar media diaria se producen en las áreas de montaña del interior de Bizkaia y Gipuzkoa, dándose el mínimo en Urkiola con 10672 kJ/m$^2$. Los niveles de irradiación aumentan desde las montañas de la divisoria de aguas hacia la costa, alcanzándose 11940 kJ/m$^2$ en Zarautz y Mungia, y hacia el sur del territorio, con 12634 kJ/m$^2$ en la Llanada Alavesa y 13503 kJ/m$^2$ en Zambrana como valor máximo.

La dirección del viento medio resulta ser muy sensible a la localización de la estación. De esta forma podemos comprobar que en áreas costeras como Punta Galea los vientos dominantes son del NW (noroeste) y SE (sureste), siendo estos últimos flojos y consecuencia de las brisas terrales que soplan desde el interior hacia la costa en noches de cielo despejado. En la Llanada Alavesa la dirección del viento es predominantemente del SW (suroeste) y NE (nordeste), con un importante porcentaje de calmas que alcanza el 30 %. En puntos elevados como La Garbea se observa un predominio de vientos de componente N (norte) flojos y del SW más intensos.

La velocidad media anual del viento varía ostensiblemente de unas zonas a otras y depende igualmente de la ubicación de la estación. Las cumbres de las montañas más elevadas son las que mantienen unas velocidades medias más altas, destacando Oiz, Zaldiaran y Kapildui con más de 25 km/h. En los valles interiores del territorio se registran los valores medios más bajos, inferiores a 10 km/h. En la costa se observa como valor más elevado los 18,6 km/h de Punta Galea seguido de Zarautz con 13,8 km/h. En la Llanada Alavesa la velocidad media del viento está próxima a 10 km/h en todos los puntos.

Las rachas máximas más elevadas se producen en cumbres de montaña y del litoral. En particular en el alto de Orduña se registran las rachas más intensas con un valor medio anual de 58,5 km/h y una racha máxima de 173,2 km/h. En Punta Galea la racha máxima registrada fue de 147 km/h y el valor medio de 51 km/h. En las estaciones de valles interiores las velocidades máximas registradas se sitúan en general entre 80 km/h y 100 km/h. La dirección de los vientos más intensos han resultado ser del SW en todas las estaciones, sin embargo, en áreas costeras se registran vientos igualmente intensos de componente N o NW.

Los ríos se mantienen en sus niveles normales registrándose pocas crecidas de importancia. Únicamente el día 5 de mayo se producen algunos problemas y pequeños desbordamientos en Hernani y Renteria debido a las crecidas de los ríos Oiartzun y Urumea producidas por las lluvias registradas los días 4 y 5. Las escasas precipitaciones registradas entre mayo y octubre se dejan notar en los bajos caudales de los ríos de Gipuzkoa y Alava principalmente y también de Bizkaia. A finales de año los ríos alcanzan en Gipuzkoa los niveles más bajos de los diez últimos años como respuesta a un diciembre muy seco.

Eguneko batez besteko eguzki-irradiaziorik baxuena Bizkaia eta Gipuzkoako barru aldeko mendietan gertatzen da; hain zuzen ere, minimoa Urkiolan erregistratu zen (10672 kJ/$m^2$). Irradiazio maila igo egiten da ur-mugatik kostalderantz eta hegoalderantz goazen eran; esate baterako, Zarautzen eta Mungian 11940 kJ/$m^2$-ra iritsi zen; Arabako lautadan 12634 kJ/$m^2$, eta Zambranan, gehiena bertan, 13503 kJ/$m^2$.

Haizearen batez besteko norabidea asko aldatzen da lekuaren arabera. Horrela, bada, kostaldean, konparazio batera, Galean ipar-mendebaldeko (NW) eta hego-ekialdeko (SE) haizea nagusitzen dira. SE haizea, haize ahula da, oskarbi dagoen gauetan barrualdetik kostalderantz jotzen duen lehorreko brisaren ondorio. Arabako lautadan, ostera, haizeak hego-mendebaldetik (SW) eta ipar-ekialdetik (NE) jo du gehienetan, baina barealdiak oso garrantzitsuak dira % 30era iristen baitira. Bestetik, leku garaietan, La Garbean adibidez, iparraldeko (N) haize ahulak eta hego-mendebaldeko (SW) gogortxoagoak nagusitzen dira.

Haizearen urteko batez besteko abiadura nabarmen aldatzen da leku batzuetatik besteetara, eta horretan ere zer esan handia du estazioaren kokalekuak. Mendi-gailur altuenetan erregistratu dira haizearen batez besteko abiadurarik altuenak. Azpimarragarrienak, Oiz, Zaldiaran eta Kapildui, 25 km/h abiadurarekin. Batez besteko baxuenak, berriz, barrualdeko bailaretan erregistratzen dira, 10 km/h-ra ere iristen ez direlarik. Kostaldean baliorik altuena Galean jaso zen (18,6 km/h), eta horren atzetik Zarautzen (13,8 km/h). Arabako lautadan haizearen batez besteko abiadura 10 km/h inguru ibili da leku guztietan.

Abiadura handieneko haize-boladak mendi-gailurretan eta kostaldean izan dira. Zehatzago esanda, Orduña gainean erregistratu dira haize-boladarik handienak, haize-bolada maximoen urteko batez besteko abiadura 58,5 km/h izan delarik, eta haize-bolada maximoa, 173,2 km/h; Galean erregistratu den haize-bolada maximoa 147 km/h izan da, eta maximoen urteko batez bestekoa, 51 km/h. Barrualdeko estazioetan erregistraturiko haize-bolada maximoa 80 km/h eta 100 km/h inguru ibili dira. Haize-bolada handienak SW aldetik jo dute estazio guztietan, baina kostaldean N eta NW jobideko haizeak ere beste horiek bezain abiadura handikoak izan dira.

Ibaien ur-maila normala izan da, eta uraldi garrantzitsu gutxi erregistratu da. Maiatzaren 4 eta 5ean egindako euriaren ondorioz, maiatzaren 5ean zenbait arazo izan ziren Hernani eta Errenterian Oiartzun eta Urumea ibaiak handitu eta zenbait lekutan pixka bat gainezka egin zutelako. Besterik ez. Maiatzetik urrira bitartean egindako euri eskasak bere eragina izan zuen erreken emarian, Gipuzkoa eta Araban, batez ere, baina baita Bizkaian ere. Urte amaieran Gipuzkoan errekek azken hamar urteotan izan duten ur-emaririk baxuena zuten, abendua izugarri lehorra izan baitzen.

ENERO

Enero se caracteriza por la existencia de fuertes depresiones en el Atlántico que transitan rápidamente hacia Europa. Esta situación origina vientos muy fuertes de componente sur a lo largo del mes, un régimen de precipitaciones abundantes y temperaturas templadas.

La precipitación total acumulada se mantiene dentro lo normal, con valores superiores a los 200 l/m$^2$ en diversos puntos de Bizkaia y Gipuzkoa, y próximos a 100 l/m$^2$ en Alava. Los episodios de precipitación más importantes se producen a finales de mes, debido al paso de una depresión por el Golfo de Bizkaia hacia el Mediterráneo; destaca el día 28 con precipitaciones superiores a 40 l/m$^2$ en Oñate, Ordunte, Balmaseda, Urkiola, Otxandio y Aitzu.

La temperatura media de enero es superior en 2 ó 3 ºC a la media del período 1961-1990, con registros del orden de 11 ºC en la costa y de 6 ºC en la Llanada Alavesa. Las heladas, débiles en cualquier caso, se reducen a las áreas de montaña y a la Llanada Alavesa, no habiéndose registrado temperaturas por debajo de 0 ºC en prácticamente ningún punto de Bizkaia o Gipuzkoa. Las temperaturas más elevadas se alcanzan el día 5 con valores que superan los 20 ºC en Bizkaia y Gipuzkoa. En particular, se llega a los 22,7 ºC en Aizarnazabal (Bajo Urola), 22,4 ºC en Bilbao y Muxika, y a los 21,4 ºC en Zarautz.

El viento sur es el dominante durante este mes, siendo especialmente intenso el día 7 con rachas máximas de 173 km/h en el alto de Orduña, 152 km/h en La Garbea o 122 km/h en Vitoria–Gasteiz. En la estación costera de Punta Galea se registran 11 días con rachas superiores a 100 km/h con un máximo de 147 km/h el día 22. Igualmente intensas son las rachas de viento alcanzadas en áreas urbanas densamente pobladas como Bilbao, con 100 km/h el día 1.

Los niveles de los ríos se mantienen dentro de su rango habitual para este período. En ningún caso se alcanzan niveles de alerta o inundación. Los niveles y caudales más elevados se registran durante los días 29 y 31 motivados por las precipitaciones registradas a finales de mes.

URTARRILA

Urtarrilean aipagarriena Atlantikotik Europarantz bizkor-bizkor mugitzen diren depresio handiak izan dira. Egoera horrek hegoaldetik jotzen zuten haize oso handiak, prezipitazio ugariak eta tenperatura epelak eragin ditu.

Guztira pilatutako prezipitazioa normaltzat jo daiteke, Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait lekutan 200 l/m$^2$ baino gehiago erregistratu delarik, eta Araban 100 l/m$^2$ inguru. Prezipitazioari dagokionean, egoerarik aipagarriena hilaren amaieran gertatu zen, Bizkaiko golkotik Mediterraneo aldera igaro zen depresio baten ondorioz; ildo horretatik, azpimarratzekoa da hilaren 28an 40 l/m$^2$ gainditu zutela Oñati, Ordunte, Balmaseda, Urkiola, Otxandio eta Aitzun.

Urtarrileko batez besteko tenperatura 1961-1990 epean erregistraturiko batez bestekoa baino 2 edo 3 ºC altuagoa izan zen, kostaldean 11 ºC eta Arabako lautadan 6 ºC inguru ibili delarik. Izotzak, beti ere nahiko ahulak, mendi aldera eta Arabako lautadara mugatu dira, eta ez Bizkaian, ez Gipuzkoan, ia inon ez da 0 ºC-tik beherako tenperaturarik erregistratu. Tenperaturarik altuenak hilaren 5ean erregistratu ziren: 20 ºC baino gehiago Bizkaian eta Gipuzkoan. Zehatzago esanda, Aizarnazbalen (Urola Behean) 22,7 ºC-tara iritsi zen, Bilbon eta Muxikan, 22,4 ºC-tara eta Zarautzen 21,4 ºC-tara.

Hil honetan hego haizea izan da nagusi, eta bereziki zakarra izan da hilaren 7an, 173 km/h-ko haize-bolada maximoa erregistratu zelarik Orduña gainean, 152 km/h-koa La Garbean eta 122 km/h-koa Vitoria–Gasteizen. Galeako estazioan 11 egunetan erregistratu zen 100 km/h baino abiadura handiagoa; abiadura handiena hilaren 22an izan zen: 147 km/h. Biztanle-dentsitate handiko zenbait gunetan ere (konparazio batera Bilbon) 100 km/h-ko abiadura erdietsi zen hilaren lehenean.

Erreken ur-maila normala da urte sasoi horretarako. Hil osoan ez da larrialdi edo uholde arriskua iragar zezakeen ur-mailara iritsi. Ur-maila eta emari altuenak urtarrilaren 29 eta 31n erregistratu ziren, hilaren azken egunetan izandako prezipitazioen ondorioz.

## FEBRERO

El mes de febrero comienza con un rápido tránsito de depresiones atlánticas hacia Europa que originan vientos intensos de componente sur. A mediados de mes, se instala un anticiclón sobre las Islas Británicas, que dará lugar a tiempo estable. La última semana un anticiclón se centra sobre el Atlántico norte y penetran masas de aire polar que provocan fuertes nevadas en puntos cercanos a la costa los días 27 y 28, cuando una potente depresión se sitúa sobre el Golfo de Bizkaia.

Febrero es en general seco en todas las áreas con precipitaciones que apenas superan los 100 $l/m^2$ en los puntos más lluviosos. En Alava, el déficit de precipitaciones es más acusado, no habiéndose registrado más de 20 $l/m^2$ en prácticamente ningún punto. Las precipitaciones más cuantiosas se registran los días 27 y 28, contabilizándose 56 $l/m^2$ en Aitzu, 51 $l/m^2$ en Igorre y Oiartzun, y 49 $l/m^2$ en Muxika.

Las temperaturas medias registradas pueden considerarse dentro de lo normal en Alava, estando comprendidas entre 4 y 5 ºC en la Llanada Alavesa. Sin embargo, en Bizkaia y Gipuzkoa las temperaturas son, en general, ligeramente superiores a lo normal estando comprendidas entre 8 y 10 ºC. Las heladas son escasas y débiles en estos dos últimos territorios, mientras que en el caso de la Llanada Alavesa se superan 15 días con temperaturas bajo cero, alcanzándose como valor más bajo –7 ºC en Arkaute el día 26. Las temperaturas máximas del mes se registran los días 11 y 12, con valores cercanos a los 25 ºC en la costa y a los 20 ºC en Alava.

Durante la primera semana se producen vientos fuertes de componente sur. Así, el día 7 se registran rachas que alcanzan 135 km/h en el alto de Orduña, 132 km/h en La Garbea, 131 km/h en Jaizkibel y 121 km/h en Zarautz y Punta Galea. En algunas zonas urbanas se llega a valores próximos a 100 km/h los días 5 y 7, como por ejemplo en Bilbao, Zizurkil, Arrasate y Vitoria-Gasteiz. Durante el resto del mes predominan los vientos flojos del norte y nordeste, exceptuando los días 27 y 28 en que se registran en Punta Galea vientos del oeste de 112 km/h.

A pesar de que este mes resulta seco, los caudales se mantienen, en general, en valores intermedios, a tenor de los caudales de los últimos diez años. Destacan tres estaciones por haber registrado los caudales más bajos de los últimos seis años (Gardea, Balmaseda y de los últimos doce años Oñati). Prácticamente todas las estaciones presentan sus valores máximos el día 1, como respuesta a las precipitaciones acaecidas a finales del mes de enero.

## OTSAILA

Otsaila Atlantikoan zeuden depresioak Europarantz bizkor-bizkor mugituz hasi da, horrek hegoaldeko haize handiak eragin dituelarik. Hilaren erdi aldera, britainiar irletan antizikloi bat gelditu da, eguraldi egonkorra eskainiz. Azkeneko astean, berriz, Ipar Atlantikoan antizikloi bat osatu da, eta ondorioz aire-masa polarrak sartzen dira kontinenterantz, eta hilaren 27 eta 28an, Bizkaiko Golkoan depresio indartsu bat sortzen denean, elurte handiak eragin ditu kostaldetik hurbil.

Otsaila nahiko lehorra izan da inguru guztietan, prezipitazioek ez baitute 100 l/m$^2$ gainditzen lekurik euritsuenetan. Araban, prezipitazio-defizita oso nabarmena da, ia inon ez baitute 20 l/m$^2$ baino gehiago jaso. Prezipitaziorik ugarienak hilaren 27 eta 28an izan ziren: 56 l/m$^2$ Aitzun; 51 l/m$^2$ Igorren eta Oiartzunen; eta 49 l/m$^2$ Muxikan.

Erregistraturiko batez besteko tenperaturak Araban normaltzat jo daitezke; Arabako lautadan, adibidez, 4 eta 5 ºC inguru ibili dira. Bizkaian eta Gipuzkoan ostera, normala baino altuxeagoak izan dira, 8 eta 10 ºC ingurukoak izan dira eta. Izotzak ere urriak eta ahulak izan dira bi lurralde horietan, ez hala Arabako lautadan, non 15 egun baino gehiagotan izan duten zero azpiko tenperatura. Baxuena, –7 ºC Arkauten, hilaren 26an. Tenperatura maximoak 11n eta 12an erregistratu ziren, kostaldean 25 ºC ingurukoak, eta Araban 20 ºC-ren bueltakoak.

Lehenengo astean hego-haize gogorrak jo zuen. Horrela, hilaren 7an, 135 km/h-ko abiadura hartu zuen haizeak Orduña gainean, 132 km/h La Garbean, 131 km/h Jaizkibelen eta 121 km/h Zarautzen eta Galean. Zenbait hirgunetan 100 km/h-ko abiadurara inguratu zen 5ean eta 7an, esate baterako Bilbon, Zizurkilen, Arrasaten eta Vitoria-Gasteizen. Gainontzeko egunetan ipar eta ipar-ekialdeko haize arinak jo zuen, hilaren 27 eta 28an izan ezik, egun horietan 112 km/h-ko abiada erdietsi zuen mendebaldeko haizea erregistratu baitzen Galean.

Otsaila lehorra izan den arren, ur-emaria, azken hamar urteotakoarekin erkatuz gero, tartean dabil. Nolanahi ere den, bi estaziotan azken sei urteotako emaririk baxuena erregistratu da (Gardean eta Balmasedan) eta Oñatin, azken hamabi urteotako baxuena. Ia estazio guztiek emaririk altuena hilaren lehenengoan erakutsi zuten, urtarrilaren azken egunetan izandako prezipitazioen islada.

MARZO

Este mes está dominado por una fuerte circulación del oeste en altura que propicia, al igual que en los meses anteriores, un rápido tránsito de depresiones y perturbaciones frontales desde el Atlántico hacia Europa, originando una alta frecuencia de vientos de componente sur y temperaturas elevadas.

En lo relativo a las precipitaciones, es un mes normal o bien ligeramente seco, siendo en el sur de Alava donde se registran las menores cantidades de precipitación (51,6 l/m$^2$ en Zambrana). En muchos puntos de Bizkaia y Gipuzkoa se registran cantidades superiores a 100 l/m$^2$ , destacando los 147 l/m$^2$ registrados en Igorre y Añarbe. Las precipitaciones más importantes, en la vertiente cantábrica, se producen el día 29 al paso de un frente frío del noroeste (se llegan a medir 43 l/m$^2$ en Oiartzun).

La temperatura media es más cálida de lo habitual, con valores 2-3 ºC superiores a los normales en el interior y del orden de 3-4 ºC superiores en la costa. Las heladas tienen escasa incidencia durante este mes y se localizan principalmente en las zonas de montaña, siendo las más intensas las producidas en La Herrera (–4 ºC), en Urkiola y Kapildui (ambas con –4,3 ºC), y en Iturrieta y Salvatierra (–5,3 ºC). Cabe destacar las temperaturas máximas producidas el día 23 de marzo, con valores entre 26 y 28 ºC en el interior de Bizkaia y Gipuzkoa.

El viento de componente sur es predominante. Durante los primeros días, la presencia de una borrasca al oeste de Galicia provoca episodios de viento muy fuerte de componente sur, con rachas máximas superiores a los 100 km/h en las zonas de montaña. Así, por ejemplo, el día 2 se produce una racha máxima de 155 km/h en Orduña y 111 km/h en Kapildui. El día 24 una situación similar provoca rachas máximas en numerosas estaciones, alcanzándose en Zarautz los 105 km/h. A finales de mes se vuelven a registrar vientos fuertes de componente oeste-noroeste, en especial en Bizkaia. De este modo, el día 29 en Oiz (146 km/h), Punta Galea (130 km/h) y Mungia (86 km/h) se registran las rachas máximas del mes.

No se producen problemas debido a inundaciones o avenidas, pero sí se producen diversos episodios de precipitación importante que provocan niveles altos. El día 12 se alcanzan los máximos niveles en el Oria, y durante los últimos días del mes se registran máximos en las estaciones de aforo del Ibaizabal (Amorebieta, Berna, Urkizu), Deba (San Prudentzio), y Oka (Muxika). El día 2, sin precipitaciones importantes, se producen máximos en diversas estaciones de la cuenca del Nervión y del Urola (Aranguren, Gardea, Sodupe-Herrerías, Orozko, Saratxo, Aitzu, Aizarnazabal, Belauntza, Ereñozu), producidas en este caso por el deshielo en cotas más elevadas.

## MARTXOA

Hil honen ezaugarrietako bat alturan ibilitako mendebaldeko haize oso gogorra dugu; haize horrek, aurreko hiletan bezalaxe, depresio eta nahasmendu frontalak bizkor iraganarazten ditu Atlantikotik Europarantz, eta, horrek, era berean, hegotik jotzen duen haizea eta tenperatura altuak ekarri ditu maiz.

Prezipitazioei begiratuz gero, hilabete normal samarra edo lehor antzekoa izan dela esan daiteke; prezipitaziorik gutxien Araba hegoaldean izan dute (51,6 l/m$^2$ Zambranan). Bizkaia eta Gipuzkoako leku askotan 100 l/m$^2$ gainditu dituzte, eta aipatzekoak dira Igorren eta Añarben erregistraturiko 147 l/m$^2$. Prezipitaziorik garrantzitsuenak, Kantauri aldean, hilaren 29an gertatu ziren, ipar-mendebaldeko fronte hotz bat igaro zelarik (Oiartzunen 43 l/m$^2$).

Batez besteko tenperatura ohikoa baino epelxeagoa gertatu da; barrualdean 2-3 ºC normalaren gainetik, eta kostaldean 3-4 ºC. Izotzak ez du aparteko aipamenik merezi hilabete honetan; mendi aldean izan dira handienak: Herreran (–4 ºC), Urkiolan eta Kapilduin (biak –4,3 ºC), eta Iturrietan eta Agurainen (–5,3 ºC). Aldiz, aipatu beharra dago martxoaren 23an Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdean 26 eta 28 ºC arteko tenperaturak erdietsi zirela.

Hego aldetik jotzen duen haizea da nagusi. Lehenengo egunetan Galiziaren mendebaldean dagoen depresio batek hegoaldeko haize oso-oso gogorra eragiten du, eta haize-bolada maximoak 100 km/h-ko abiadura gainditzen dute mendi aldean. Horrela, bada, hilaren 2an 155 km/h-ko haizea erregistratu zen Orduñan eta 111 km/h-koa Kapilduin. Hilaren 24an antzeko egoera batek haize-bolada maximoak eragin zituen estazio askotan, eta Zarautzen 105 km/h-ko abiadura hartu zuen. Hilaren amaiera aldera, berriro ere haize gogorrak izan ziren, mendebalde eta ipar-mendebaldetik, Bizkaian batipat. Horren adibide ditugu hilaren 29an jasotako datuak: Oizen, 146 km/h; Galean, 130 km/h; eta Mungian 86 km/h, hilabeteko haize-bolada maximoak hain zuzen.

Uholdeek ez dute arazorik sortu, baina zenbait kasutan prezipitazioak errekak nabarmen handitu ditu, emari altuak eraginez. Orian hilaren 12an iritsi zen ura mailarik altuenera, eta hilaren azken egunetan iritsi zen ura mailarik altuenera Ibaizabalgo aforo-estazioetan (Amorebieta, Berna eta Urkizun), Deban (San Prudentzion), eta Okan (Muxikan). Martxoaren 2an prezipitazio garrantzitsurik ez izan arren, Nerbioi ibaian eta Gipuzkoako zenbait estaziotan maximoak erregistratu ziren (Aranguren, Gardea, Sodupe-Herrerías, Orozko, Saratxo, Aitzu, Aizarnazabal, Belauntza eta Ereñozun), kota altuagoetako elurrak urtzean.

ABRIL

El mes de abril está dominado por altas presiones que se sitúan sobre el Atlántico o las Islas Británicas, produciendo flujos de componente norte. A finales de mes, se produce una incursión de viento polar que provoca fuertes precipitaciones, siendo en forma de nieve en las montañas.

Las precipitaciones son ligeramente inferiores a lo normal en Bizkaia y Gipuzkoa. Los puntos de mayor pluviometría se localizan en la zona más oriental de Gipuzkoa (Berastegi-Belauntza 144 l/m$^2$, Oiartzun 142 l/m$^2$), en puntos del interior de Bizkaia y Gipuzkoa (Igorre 131,6 l/m$^2$, Aitzu 132,6 l/m$^2$), y en las comarcas noroccidentales de Bizkaia (Derio 137,6 l/m$^2$, Mungia 131,9 l/m$^2$). Cabe reseñar las precipitaciones producidas el día 30 con valores superiores a 50 l/m$^2$ en Bizkaia. No obstante, el mes resulta seco en Alava, especialmente en la Llanada y en la Rioja Alavesa donde apenas se rebasan los 50 y 20 l/m$^2$ respectivamente.

Las temperaturas se sitúan en general dentro de lo normal o bien ligeramente por debajo en la Llanada Alavesa y en Bizkaia. En la vertiente cantábrica la temperatura media está entre 10 y 12 ºC, y en La Llanada Alavesa alrededor de 8 ºC. Las heladas son abundantes pero restringidas a Alava y a zonas de montaña, destacando los casi –4 ºC registrados en Navarrete, Arkaute u Otxandio el día 15. La temperatura máxima se alcanza el día 1, con valores entre 25 y 29 ºC en Bizkaia y Gipuzkoa y del orden de 22 ºC en la Llanada Alavesa. En particular destacan Mungia y Oiartzun con más de 28 ºC.

Los vientos son, en general, flojos o moderados, predominando la componente norte. El día 7 se producen vientos intensos del W y NW en puntos costeros y de montaña como Cerroja (126 km/h) La Garbea (123,1 km/h), Jaizkibel (120,2 km/h) o Punta Galea (114 km/h). Asimismo, cabe destacar el episodio de galerna producido el día 2, en el que los vientos superan en Punta Galea los 80 km/h, acompañados de un descenso de temperatura del orden de 10 ºC en 20 minutos. Un nuevo temporal de viento del SW se presenta el día 23, alcanzándose 124 km/h en Orduña y 103 km/h en Punta Galea.

Durante este mes no se alcanza el nivel de alarma en ninguna de las estaciones de aforo. En casi todas las estaciones de Gipuzkoa, a excepción de las de Ibai Eder, Oiartzun, Aixola y Añarbe, se alcanza el nivel máximo el día 23, mientras que en Bizkaia los niveles alcanzan su máximo el día 30 en que se registran fuertes precipitaciones en este territorio.

APIRILA

Apirilean Atlantikoan edo britainiar irletan kokaturiko presio altuak gailendu ziren, eta presio altu horiek iparreko haize arina eragin zuten. Hilaren amaieran, ordea, polotik zetorren haizea sartu zen prezipitazio handiak eraginez, eta mendietan gainera, elurra bota zuen.

Prezipitazioak normala baino zertxobait baxuagoak izan ziren Bizkaia eta Gipuzkoan. Prezipitazio handienak Gipuzkoa ekialdean (Berastegi-Belauntzan 144 l/m$^2$, Oiartzunen 142 l/m$^2$), Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdean (Igorre 131,6 l/m$^2$, Aitzu 132,6 l/m$^2$), eta Bizkaiko ipar-mendebaldeko eskualdeetan (Derion 137,6 l/m$^2$, Mungian 131,9 l/m$^2$) erregistratu ziren. Azpimarragarriena Bizkaian hilaren 30ean erregistraturiko 50 l/m$^2$. Nolanahi ere, hil lehorra eman zuen Araban, batez ere Lautadan eta Errioxan, hurrenez hurren 50 eta 20 l/m$^2$ inguru batu baitzen.

Tenperaturak normal antzekoak izan ziren; agian Arabako Lautadan eta Bizkaian normala baino zertxobait baxuagoak. Isurialde atlantikoan batez besteko tenperatura 10 eta 12 ºC artean dabil, eta Arabako Lautadan 8 ºC-ren bueltan. Izotzak ugariak dira, baina Arabara eta mendi inguruetara mugatzen dira; azpimarratzekoa da Navarrete, Arkaute eta Otxandion ia –4 ºC-ra jaitsi zela termometroa hilaren 15ean. Tenperatura maximoa, berriz, hilaren lehenengoan jaso zen, 25 eta 29 ºC arteko tenperatura izan baitzen Bizkaian eta Gipuzkoan, eta 22 ºC ingurukoa Arabako Lautadan. Bereziki aipatu beharrekoak dira Mungia eta Oiartzun, bietan ere 28 ºC-ko tenperatura gainditu baitzen.

Haizeak, oro har, arinak edo biziak izan dira, eta iparretik jo dute gehienetan. Hilaren 7an, ordea, W eta NW jobideko oso haize zakarrak jo zuen kosta eta mendialdeko zenbait lekutan, hala nola, Cerrojan (126 km/h), La Garbean (123,1 km/h), Jaizkibelen (120,2 km/h) eta Galean (114 km/h). Horretaz aparte, hilaren bian enbatak ere jo zuen, eta Galean haizeak 80 km/h-ko abiadura pasatu egin zuen, eta horrekin batera 20 minutuko tartean tenperatura 10 ºC inguru jaitsi zen. Hilaren 23an ere haize-ekaitza izan zen; egun horretan SW jobidetik jo zuen haizeak eta Orduñan 124 km/h eta Galean 103 km/h abiadurara iritsi zen.

Aforo-estazioetan ura ez da estutzeko mailetara iritsi. Gipuzkoako estazio gehienetan, Ibai Eder, Oiartzun, Aixola eta Añarbekoetan izan ezik, mailarik altuena 23an hartu zuen urak; Bizkaian, ostera, hilaren 30ean, lurralde horretan egindako euri jasen ondorio.

## MAYO

El mes comienza en su primera semana fresco y muy lluvioso, situación propiciada por la existencia de una depresión en altura y un anticiclón situado en el Atlántico. Durante la segunda semana del mes una depresión se sitúa frente a las costas de Galicia produciendo vientos de componente sur y un ascenso de las temperaturas. El resto del mes la configuración sinóptica no está claramente definida predominando los gradientes débiles de presión. Entre los días 27 y 30 se produce una incursión de aire sahariano con un aumento importante de las temperaturas.

Mayo resulta un mes seco y con pocos días de precipitación. La precipitación acumulada se encuentra, en general, por debajo de 50 l/$m^2$ en casi todo el territorio, siendo inferior a 20 l/$m^2$ en amplias zonas de Alava (8,6 l/$m^2$ en Vitoria-Gasteiz, 12,2 l/$m^2$ en Zambrana). Únicamente en la zona oriental de Gipuzkoa se alcanzan valores medios normales, con 161 l/$m^2$ en Añarbe y 132 l/$m^2$ en Oiartzun. Estos valores son debidos al episodio de lluvias persistentes de los días 4 y 5 en que se registran más de 120 l/$m^2$ en Añarbe y 80 l/$m^2$ en Oiartzun.

Las temperaturas registradas pueden considerarse normales con medias cercanas a los 10 ºC en zonas de montaña, 12 ºC en la Llanada Alavesa y alrededor de los 15 ºC en la zona costera. Entre los días 27 y 30 una ola de calor origina temperaturas máximas superiores a 30 ºC en todo el territorio y por encima de los 35 ºC en muchos puntos (Zaratamo 36,9 ºC, Berastegi 35,8 ºC, Llodio y Amorebieta 35,3 ºC, Aranguren, Balmaseda y Elorrio 35,2 ºC y Ordizia 35,1 ºC) Estos valores están próximos a los máximos históricos registrados en este mes. Las heladas que se producen son de carácter débil y se restringen a puntos de Alava y zonas de montaña como Kapildui o La Herrera, con –2,4 ºC el día 1.

Predominan los vientos de componente norte de intensidad débil, en general, salvo en puntos de costa y de montaña donde son algo más intensos. El día 12 se produce una galerna sobre la costa que provoca intensidades de viento máximas en Punta Galea (103 km/h) y en Zarautz (75,2 km/h). El día 2 de mayo se producen igualmente velocidades elevadas debido a tormentas locales en puntos como Zaldiaran (94 km/h) y Barazar (80,6 km/h).

Los niveles de los ríos de la Comunidad no alcanzan alturas significativas durante el mes de mayo, excepto en las cuencas de los ríos Oiartzun y Urumea. Las precipitaciones persistentes registradas durante los días 4 y 5 en la zona nororiental de Gipuzkoa, provocan un aumento de niveles en los ríos Oiartzun y Urumea el día 5, los cuales sobrepasan los niveles de alerta pero no los de inundación. No obstante, se observan desbordamientos en algunos puntos de estas cuencas.

MAIATZA

Hila nahiko fresko eta oso euritsu hasi zen, goialdean zegoen depresio baten eta Atlantikoan kokaturiko antizikloi batek eraginda. Hilaren bigarren asterako depresioa Galiziako kostaldearen parean kokatu zen, eta horrek hegoaldeko haizea eta tenperaturen igoera ekarri zuen. Hilaren gainontzeko egunetako konfigurazio sinoptikoa ez da oso garbia, eta gradiente barometriko ahulak gailentzen dira. Hilaren 27tik 30era bitartean Saharako haizea sartu zen, eta horrek tenperaturak nabarmen igoarazi zituen.

Maiatza hilabate lehorra izan zen, eta egun gutxitan izan zen prezipitaziorik. Pilaturiko prezipitazioa 50 l/m$^2$-tik behera ibili zen leku gehienetan, eta Arabako leku anitzetan, gainera, 20 l/m$^2$-ra ere ez ziren heldu (8,6 l/m$^2$ Vitoria-Gasteizen, 12,2 l/m$^2$ Zambranan). Gipuzkoa ekialdean soilik iritsi ziren batez besteko neurri normaletara: 161 l/m$^2$ Añarben eta 132 l/m$^2$ Oiartzunen. Balio horiek hilaren 4 eta 5eko etengabeko euri jasen ondorio izan ziren, Añarben 120 l/m$^2$ eta Oiartzunen 80 l/m$^2$ erregistratu baitzuten.

Erregistraturiko tenperaturak ohikoak dira, batez bestekoak 10 ºC-ren bueltakoak baitira mendialdean, 12 ºC ingurukoak Arabako Lautadan eta 15 ºC ingurukoak kostaldean. Maiatzaren 27tik eta 30era bitartean bero-bolada batek 30 ºC-tik gorako tenperaturak ekarri zituen lurralde osora eta leku mordoxka batean baita 35 ºC-tik gorakoak ere (Zaratamon 36,9 ºC, Berastegin 35,8 ºC, Llodion eta Amorebietan 35,3 ºC, Arangurenen, Balmasedan eta Elorrion 35,2 ºC eta Ordizian 35,1 ºC). Tenperaturak maiatzean inoiz erregistratu diren gehieneko tenperaturetatik hurbil daude. Izotzak arinak izan ziren, eta Arabara eta mendialdera (Kapildui edo Herrerara) mugatu ziren, hilaren lehenengoan –2,4 ºC-ra jaitsi zelarik.

Intentsitate arineko ipar-haizeak dira nagusi, oro har, nahiz eta kostaldeko eta mendi-parteko zenbait lekutan intentsitate handiagoa izan. Hilaren 12an enbata izan zen kostan; Galean haizeak gehieneko abiadura hartu zuen, 103 km/h, eta Zarautzen, 75,2 km/h. Maiatzaren 12an ere nahiko abaidura handia ibili zuen haizeak, ekaitz lokalen ondorioz, esate baterako Zaldiaranen, 94 km/h, eta Barazarren, 80,6 km/h.

Autonomia Erkidegoko ibaietako ura ez zen aparteko mailatara iritsi maiatzean, Oiartzun eta Urumea ibaietako arroetan izan ezik. Hilaren 4an eta 5ean Gipuzkoako ipar-ekialdean izan ziren etengabeko euri jasek nabarmen igoarazi zuten ura Oiartzun eta Urumea ibaietan hilaren 5ean, eta alerta-maila ere gainditu zuten, nahiz eta uholde-mailara azkenean iritsi ez. Nolanahi ere, esan beharra dago arro horietako zenbait gunetan gainezka egin zuela urak.

JUNIO

El mes de junio se caracteriza, en general, por los débiles gradientes de presión existentes y por las configuraciones sinópticas poco definidas, bajas térmicas y pantanos barométricos típicos de la estación veraniega. Es de destacar la entrada de aire frío en altura que se produce entre los días 10 y 11, que da origen a fuertes tormentas.

Junio es un mes seco, con precipitaciones inferiores a las normales, especialmente en Alava donde apenas se rebasan los 10 $l/m^2$. En particular, Subijana destaca como la estación con menor precipitación registrada, con sólo 1,8 $l/m^2$. Las precipitaciones más elevadas se producen en áreas de montaña (Urkiola 83,8 $l/m^2$ y Bidania 76 $l/m^2$) y en la zona oriental de Gipuzkoa (Ereñozu 80 $l/m^2$). Destacan las intensas precipitaciones registradas en Urkiola y San Prudentzio el 9 de junio, con valores del orden de 20 $l/m^2$ en 10 minutos y totales acumulados de 62 $l/m^2$ en 24 horas en Bidania el día 10.

Las temperaturas medias están dentro de lo normal en Bizkaia y Gipuzkoa, donde se sitúan entre 17 y 18 ºC. En Alava son ligeramente superiores a lo normal situándose entre 16 y 17 ºC. En esta última provincia se producen temperaturas máximas elevadas, registrándose valores próximos a 40 ºC entre los días 20 a 25. Las temperaturas mínimas alcanzan valores próximos a 0 ºC en localidades de montaña y de la Llanada Alavesa tales como Arkaute, Otxandio, Ozaeta, Iturrieta y Navarrete, pero no se producen heladas.

Predominan los vientos flojos o encalmados y en régimen de brisas, registrándose únicamente vientos de carácter moderado en áreas de montaña y en zonas costeras. Las rachas máximas registradas están comprendidas entre los 60 y 70 km/h, produciéndose en la mayoría de los lugares, bien el día 9, debido a tormentas locales, o bien por vientos del noroeste los días 16 y 17, provocados por una depresión en las Islas Britanicas.

Las escasas precipitaciones registradas este mes quedan reflejadas en los bajos niveles de los ríos. En ningún caso alcanzan los niveles de alerta. Excepto en las estaciones de Abusu y Sodupe-Kadagua (ambas en Bizkaia) en el resto de las estaciones los caudales máximos se alcanzan el día 10, coincidiendo con las cuantiosas precipitaciones registradas en Bidania, Urkiola, Alegia, Altzola, y San Prudentzio.

## EKAINA

Ekainean eguraldiak ezaugarri hauek erakutsi ditu: gradiente barometriko arinak eta konfigurazio sinoptiko ez oso garbiak, depresio termikoak eta aintzira barometrikoak, uda-sasoiko ohiko ezaugarriak. Azpimarratzekoa da ekainaren 10 eta 11n goialdean aire hotza sartu zela, eta horrek oso ekaitz gogorrak eragin zituela.

Ekaina hilabete lehorra izan da, eta prezipitazioak ohikoak baino baxuagoak izan dira, bereziki Araban, non ez baitira 10 l/m$^2$ gainditu. Xehetasun bila hasiz gero, Subijana da prezipitaziorik gutxien erregistratu zuen estazioa, 1,8 l/m$^2$ besterik ez. Prezipitaziorik gehien mendialdean (Urkiolan 83,8 l/m$^2$ eta Bidanian 76 l/m$^2$) eta Gipuzkoako ekialdean (Ereñozun 80 l/m$^2$) egin zuen. Ezin ahaztu, bestetik, Urkiolan eta Debagoienan hilaren 9an izandako euri jasak, 10 minutuko tartean 20 l/m$^2$ bota baitzituen, eta Bidanian hilaren 10ean 24 orduko epean 62 l/m$^2$.

Batez besteko tenperaturak, 17 eta 18 ºC artekoak, normalak izan ziren Bizkaia eta Gipuzkoan. Araban ohikoak baino altuxeagoak izan ziren, eta 16 eta 17 ºC artean ibili ziren. Araban tenperatura maximo altuak izan zituzten hilaren 20tik 25erako tartean, 40 ºC-ren inguruko tenperaturak erregistratu baitziren. Tenperatura minimoak, berriz, 0 ºC-ren bueltakoak erregistratu ziren mendialdeko herrietan eta Arabako Lautadan, esate baterako, Arkaute, Otxandio, Ozaeta, Iturrieta eta Navarreten, baina ez zuen izotzik egin.

Brisa itxurako haize arinak eta barealdiak nagusitu ziren, eta intentsitate handiagokoak, haize biziak, mendi-partean eta kostaldean baino ez ziren erregistratu. Haize-bolada maximoak 60 eta 70 km/h artekoak izan ziren, eta leku gehienetan hilaren 9an eta hilaren 16 eta 17an izan ziren, egun batean ekaitz lokalen ondorioz, eta besteetan britainiar irletako depresio batek eragindako ipar-mendebaldeko haizeak eraginda.

Hil horretan erregistraturiko prezipitazio eskasek bere islada izan zuten ibaien ur-mailan. Inon ez ziren alerta-mailara iritsi. Abusu eta Sodupe-Kadaguako estazioetan izan ezik (biak ere Bizkaian) gainontzeko estazioetan gehieneko ur-emaria hilaren 10ean neurtu zen, Bidania, Urkiola, Alegia, Debabarrena eta Debagoienan izandako euri jasen ondoren.

JULIO

Durante los 20 primeros días del mes la situación atmosférica se caracteriza por un tránsito de depresiones atlánticas hacia Europa que originan un tiempo fresco y lluvioso en la mayor parte del territorio. Durante los últimos diez días del mes, esta situación cambia y da paso a las configuraciones sinópticas típicas de la estación veraniega, como las bajas térmicas y los pantanos barométricos. Bajo esta situación se producen importantes precipitaciones tormentosas en Alava y áreas de Bizkaia y Gipuzkoa los días 27 y 28, como consecuencia de una entrada de aire frío en los niveles altos de la atmósfera.

Julio es lluvioso, destacando los 148 $l/m^2$ de Añarbe y superándose los 100 $l/m^2$ en amplias áreas de Bizkaia y Gipuzkoa. En Alava las precipitaciones son sensiblemente inferiores, alcanzándose los 85 $l/m^2$ en la Llanada Alavesa y como valor más bajo los 45 $l/m^2$ en La Herrera, al sur del territorio. Cabe destacar las precipitaciones registradas el día 14 en el área de Bilbao, donde se alcanzan cantidades cercanas a 50 $l/m^2$ .

Las temperaturas medias son ligeramente inferiores a lo normal destacando el hecho de que las temperaturas máximas absolutas no superan en ningún caso los 35 ºC, incluso en el sur del territorio. De esta forma la temperatura media en Bizkaia y Gipuzkoa está comprendida entre 18 y 20 ºC, y entre 16 y 18 ºC en Alava. La temperatura mínima del mes se registra en Otxandio y Kapildui con 4 ºC, pero en días diferentes: en Otxandio durante el día 21, despejado y caluroso durante el día y de fuerte irradiación nocturna, mientras que en Kapildui el día 19, lluvioso y con fuertes vientos del noroeste.

Los vientos son en general flojos y de componente norte. En zonas de montaña y en la costa se registran ocasionalmente rachas de viento fuerte o muy fuerte del NW como las observadas el día 19 con 94 km/h en Oiz u 87 km/h en Punta Galea.

A pesar de tratarse de un mes muy lluvioso, los caudales no suben de forma alarmante en ninguna estación, de tal forma que no se alcanzan los niveles de alerta. Esto se debe, sobre todo, a que la precipitación no se concentra en un período corto de tiempo sino que, por el contrario, se produce espaciada en el tiempo. Las precipitaciones del día 28 afectan de forma generalizada a los ríos guipuzcoanos, mientras que los episodios de lluvia registrados el resto de los días ejercen su influencia sobre todo en los ríos de Alava y Bizkaia.

UZTAILA

Hilaren lehenengo 20 egunetan egoera atmosferikoaren ezaugarri nagusia Atlantikotik Europarantz igarotako depresioak izan genituen, horrek aro freskoa eta euritsua ekarri zuelarik lurraldeko bazter gehienetara. Hilaren azken hamar egunetan berriz, egoera aldatu eta udan tipikoak diren konfigurazio sinoptikoak izan genituen: depresio termikoak eta aintzira barometrikoak. Egoera horren ondorioz, trumoiko prezipitazio garrantzitsuak izan ziren Araban, eta Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait aldetan, hilaren 27 eta 28an, atmosferako goialdean aire hotza sartu zenean.

Uztaila euritsua gertatu zen: Añarben 148 l/m$^2$ jaso ziren eta Bizkaiko eta Gipuzkoako parte eder batean 100 l/m$^2$ baino gehiago. Araban prezipitazioak nabarmen urriagoak dira; Arabako Lautadan 85 l/m$^2$ erregistratu ziren, eta baliorik baxuena, berriz, 45 l/m$^2$, lurraldearen hegoaldean, La Herreran. Esan beharra dago Bilbo inguruan hilaren 14an egindako euriaren ondorioz 50 l/m$^2$ inguru jaso zela.

Batez besteko tenperaturak ohikoak baino zertxobait baxuagoak gertatu ziren, eta, hain zuzen ere, tenperatura maximo absolutua ez zen inon 35 ºC-ra heldu, ez eta lurraldearen hegoaldean ere. Horrela bada, Bizkaian eta Gipuzkoan batez besteko tenperatura 18 eta 20 ºC artean ibili zen, eta Araban 16 eta 18 ºC-ren bueltan. Tenperatura minimoa Otxandion eta Kapilduin izan zuten (4 ºC), baina ez egun berean: Otxandion 21ean izan zen, egunez oskarbi eta bero, eta gauez irradiazio handia; eta Kapildui, aldiz, hilaren 19an, egun euritsua, ipar-mendebaldeko haize gogorrekin.

Haizea, ipar garbia, gehienetan ahula izan zen. Mendi-partean eta kostaldean, hala ere, tarteka NWtik jotzen zuen haize-bolada gogorrak eta oso gogorrak ere izan ziren. Hilaren 19an 94 km/h hartu zuen Oizen eta 87 km/h Galean.

Hilabete euritsua izan arren, ur-emaria inongo estaziotan ez zen estutzeko moduan igo, inon ez baitzen alerta-mailara iritsi. Eta horrek badu arrazoi bat: euria ez zuen epe labur batean bota, pixkanaka-pixkanaka baizik. Hilaren 28ko euriek ordea izan zuten eraginik Gipuzkoako ibaietan, eta gainontzeko egunetan egindakoak Araban eta Bizkaian izan zuen eragina.

AGOSTO

A lo largo del mes, el predominio de las configuraciones típicas de verano como los pantanos barométricos y las bajas térmicas es completo. Ocasionalmente se producen incursiones de aire frío en altura que ocasionan tormentas en algunos casos intensas, principalmente a mediados y finales de mes.

Las precipitaciones son inferiores a lo normal en todas las áreas no alcanzándose en muchos puntos de Bizkaia y Gipuzkoa más de 20 $l/m^2$. El extremo nororiental de Gipuzkoa es el más lluvioso con cerca de 80 $l/m^2$ de precipitación mensual. No obstante, destacan algunos episodios de tormentas locales acompañadas de pedrisco los días 15, 26 y 28 que afectan a distintas áreas, registrándose precipitaciones que alcanzan los 14 $l/m^2$ en diez minutos en Estanda (Alto Oria) como valor más alto.

Las temperaturas medias son ligeramente superiores a lo normal en el interior del territorio y se mantienen dentro de lo normal en la costa, con valores entre 19 y 21 ºC en todas las áreas, excepto en las de montaña. Destacan las temperaturas máximas alcanzadas el día 25 de agosto, con 40 ºC en Alegia, y próximas a esta cifra en distintas localidades. La temperatura mínima se registra el día 11 en Navarrete (Montaña Alavesa) con 3,5 ºC, debido a la fuerte irradiación nocturna.

Los vientos son, en general, flojos y en régimen de brisas, si bien hay que hacer especial mención a las rachas de viento que se producen en áreas afectadas por tormentas, alcanzándose 116 km/h en Bidania el día 15, 106 km/h en Alegria el día 25 y 104 km/h en Orduña el día 26.

No se produce ningún problema debido a crecidas de los ríos, más bien al contrario, se alcanzan niveles (caudales) bajos, debido a la escasez de precipitaciones. Este hecho propicia que las influencias exteriores (embalses, centrales hidroeléctricas, riegos...) durante este período sean más notables que el resto del año, de tal forma que los valores reflejados, en general, no representan la situación natural de los ríos.

ABUZTUA

Hilabete osoan zehar udako egoera tipikoak erabat gailendu ziren, hau da, aintzira barometrikoak eta depresio termikoak. Tarteka goialdean aire hotza sartu zen, eta horrek ekaitzak eragin zituen, inoiz gainera nahiko gogorrak, batez ere hilaren erdi eta amaiera aldean.

Abuztuan ohikoa den baino gutxiago bota zuen euritan bazter guztietan, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako leku askotan ez zen 20 l/m baino gehiago jaso. Gipuzkoako ipar-ekialdea izan zen eskualderik euritsuena, hilean 80 l/$m^2$ ingururekin. Hala ere, hilaren 15ean, 26an eta 28an hainbat lekutan izandako ekaitz lokalak eta botatako harria azpimarratu beharra dago; nabarmentzekoa, Estandan (Oria garaian) hamar minutuko tartean euritan jasotako 14 l/$m^2$.

Tenperaturak, batez beste, ohikoak baino altuxeagoak dira barrualdean, eta kostaldean normaltzat jo daitezke, 9 eta 21 ºC artean baitabiltza leku guztietan, mendi-partean izan ezik. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da Alegin hilaren 25ean termometroa kgoia jo zuela 40 ºC-rekin, eta beste herri batzuetan ere antzeko tenperatura izan zuten. Tenperatura minimoa Navarreten (Arabako mendialdean) erregistratu zen hilaren 11n, 3,5 ºC-rekin, gaueko irradiazio itzelaren ondorioz.

Haizeak, oro har, arinak dira, brisa erakoak, nahiz eta ekaitzak jotzen duen lekuetan sortzen diren haize-parrastak ere azpimaragarriak diren; esate baterako, Bidanian 116 km/h-ko abiadura hartu zuen hilaren 15ean, 106 km/h Dulantzin hilaren 25ean, eta 104 km/h Orduñan, abuztuaren 26an.

Ibai eta errekei dagokienean, inon ez zen arazorik izan errekak handituta zetozelako; aitzitik, prezipitazio ezak ur-maila (emaria) punturik baxuenera jaitsi zen. Euri ezak, kanpoko zenbait faktoreren (urtegi, zentral hidroelektriko, ureztaketa, eta antzekoen...) eragina areagotu egiten du, urteko gainontzeko sasoiekin alderatuta, eta horregatik, oro har, islatutako balioak ez dira ibaiaren egoera naturalaren adierazgarri.

SEPTIEMBRE

Durante los 20 primeros días del mes las altas presiones centradas al norte de la Península Ibérica son predominantes, lo que provoca la entrada de vientos de componente norte fríos y, en general, secos. Esta situación acaba el día 19 con la entrada de una depresión desde el Atlántico que da lugar a tormentas importantes en algunos puntos. La última semana del mes se caracteriza por la entrada de vientos más templados de componente sur.

Es un mes poco lluvioso, habiéndose registrado entre 30 $l/m^2$ y 60 $l/m^2$ en la mayoría de las estaciones, destacando Arrasate y Barazar con 98 $l/m^2$ y 89 $l/m^2$ respectivamente. El día 21 se producen precipitaciones tormentosas intensas registrándose en Altube 18 $l/m^2$ en diez minutos y 16 $l/m^2$ en Bilbao, donde se producen problemas debido a la intensidad de las precipitaciones.

La temperatura media del mes está 2 ºC por debajo de la media en todas las áreas, con 13-14 ºC en la Llanada Alavesa y 16-17 ºC en la vertiente cantábrica. Se producen heladas en puntos de Alava, como los –2,1 ºC registrados en Navarrete el día 19. Las temperaturas máximas no superan en ningún caso los 30 ºC.

El viento es predominantemente de componente N, tanto en áreas de montaña como en los valles del interior, y en particular en la Llanada Alavesa. La intensidad del viento es en general débil, con abundancia de calmas en la zona interior del territorio. En áreas costeras y de montaña se registran vientos moderados, siendo éstos de componente noroeste en la costa, y de componente suroeste con mayor intensidad en montaña. Se producen episodios de vientos fuertes de componente sur en áreas de montaña, con rachas máximas de hasta 85 km/h (Cerroja).

En general, los caudales de los ríos se mantienen por debajo de lo normal. En respuesta a las precipitaciones tormentosas del día 21, se producen en las estaciones de Abusu y Zaratamo los mayores incrementos de caudal registrados.

## IRAILA

Hilaren lehen 20 egunetan penintsula iberiarraren iparraldean kokaturiko presio altuak dira nagusi, eta horrek iparretik datozen haize hotz eta, normalean lehorren sarrera eragiten du. Egoera hori hilaren 19an bukatu zen, Atlantiko aldetik depresio bat sartu, eta zenbait lekutan ekaitz garrantzitsuak sorrarazi zituelarik. Hilaren azken astearen ezaugarri nagusia hegoaldetik jotzen zuten haize epelagoak izan genituen.

Ez da oso hil euritsua, eta estazio gehienetan 30 l/m$^2$ eta 60 l/m$^2$ bitarteko balioak neurtu ziren; Arrasaten eta Barazarren, ordea, 98 l/m$^2$ eta 89 l/m$^2$–tara iritsi ziren, hurrenez hurren. Hilaren 21ean trumoiko prezipitazioak izan ziren, eta Altuben, 10 minutuko tartean 18 l/m$^2$ jaso ziren, eta Bilbon, l/m$^2$, euriaren intentsitateak gainera, arazoak eragin zituen.

Iraileko batez besteko tenperatura ohikoa baino 2 ºC inguru baxuagoa izan zen alde guztietan, Arabako Lautadan 13-14 ºC eta kantaurialdean 16-17 ºC. Arabako zenbait lekutan izotza egin zuen; Navarreten, konparazio batera, –2,1 ºC erregistratu zuen termometroak hilaren 19an. Tenperatura maximoek ez dute inoiz 30 ºC gainditu.

Iparraldeko haizea izan da nagusi, bai mendialdean bai barrualdeko bailaretan, eta bereziki Arabako Lautadan. Haizearen intentsitatea, oro har, nahiko arina izan da, barrualdean sarri barealdiak nagusitu direlarik. Kostaldean eta mendialdean haize biziak erregistratu dira, gehienetan ipar-mendebaldekoak kostan, eta hego-mendebaldekoak, zakarragoak, mendialdean. Hegoaldeko haize gogorrak ere erregistratu ziren mendialdean, Cerrojan 85 km/h-ra ere iritsi ziren.

Orokorrean, erreketako uraren emaria hil horretan normala denaren azpitik ibili da. Hala ere, hilaren 21ean izandako ekaitz-prezipitazioaren ondorioz, Abusu eta Zaratamoko estazioetan emari-igoerarik nabarmenenak jaso ziren.

OCTUBRE

El mes de octubre se caracteriza por la alta frecuencia de vientos de componente sur, originados por depresiones atlánticas en conjunción con anticiclones centrados en Centroeuropa.

Las precipitaciones, debido a este patrón predominante de vientos del sur, son escasas en todo el territorio. La estación que registra la máxima precipitación acumulada es Zegama con 82,6 l/m$^2$. Es de destacar que en las Encartaciones de Bizkaia y en algunos puntos de Alava no se recogen más de 30 l/m$^2$ en todo el mes. No obstante, se producen precipitaciones tormentosas intensas; destacan los más de 45 l/m$^2$ recogidos en Zegama o Iturrieta el día 19.

Las temperaturas medias del mes son 2-3 ºC superiores a la media en todas las áreas, con valores de 18-19º C en el litoral y 13-15 ºC en la Llanada Alavesa. Merecen especial mención las elevadas temperaturas registradas los primeros y últimos días del mes, destacando los 34,7 ºC alcanzados en Oiartzun el día 30. Las heladas son escasas y débiles, con –1 ºC como temperatura mínima en Otxandio el día 25.

La dirección del viento es predominantemente de componente sur, siendo flojos o encalmados en todas las zonas, salvo en áreas de montaña y de costa donde se registran rachas máximas superiores a 100 km/h, destacando los 127 km/h en Orduña el día 7.

Al igual que el mes anterior, los caudales han sido bajos en general, debido a las escasas precipitaciones. Los aumentos más significativos de caudal se producen en la cuenca del Oria los días 19 y 20, como consecuencia de las precipitaciones tormentosas producidas el día 19.

URRIA

Urriaren ezaugarrietako bat hego-haizea dugu. Hegoa Atlantiko aldean dauden depresioen eta Europa erdialdean dauden antizikloien elkarreraginez sortzen da.

Prezipitazioak, hego-haizea nagusi duen patroi horren ondorioz, nahiko urriak izan dira lurralde osoan. Pilatutako prezipitazio gehien jaso duen estazioa Zegamakoa da, 82,6 l/m$^2$-rekin. Dena den, Bizkaiko Enkarterrietan eta Arabako zenbait lekutan hilabete osoan ez dira 30 l/m$^2$ besterik jaso. Nolanahi ere, euri jasak ere aipatzeko modukoak dira; konparazio batera, Zegaman edo Iturrietan 45 l/m$^2$ baino gehiago batu zituzten hilaren 19an.

Urriko batez besteko tenperaturak hil horretako batez bestekoaren 2-3 ºC gainetik ibili dira lurralde osoan: 18-19º C kostaldean eta 13-15 ºC Arabako Lautadan. Aipatzekoak dira hilaren lehen eta azken egunetan erregistraturiko tenperatura altuak, altuena Oiartzunen hilaren 30ean, 34,7 ºC. Izotzak urriak eta txikiak izan dira; tenperatura minimoa, –1 ºC, Otxandion erregistratu zuten hilaren 25ean.

Haizeak hegotik jo du gehienetan, eta leku guztietan nahiko arinak edo bareak izan dira, mendialdean eta kostan izan ezik, 100 km/h baino gehiagoko haizeak erregistratu baitituzte, besteak beste, 127 km/h Orduñan, hilaren 7an.

Aurreko hilabetean bezalaxe, emariak nahiko baxuak dira, oro har, euri gutxi egin baitu. Emari igoera deigarriena Oria ibaiaren arroan izan zen, hilaren 19 eta 20an, 19an egindako euri jasen islada garbia.

NOVIEMBRE

Noviembre mantiene unas características invernales propiciadas por las continuas entradas de aire polar. La presencia de un anticiclón en el Atlántico Norte propicia el predominio de flujos de componente N y E, que junto a los embolsamientos de aire frío en los niveles superiores de la atmósfera, producen abundantes precipitaciones, las cuales son de nieve en cotas próximas a la costa a mediados de mes.

Este mes es ligeramente más lluvioso de lo normal en todas las áreas, produciéndose abundantes precipitaciones, en especial en Bizkaia y áreas de montaña de Gipuzkoa; destacan los 261 l/m$^2$ de Aitzu o los 249 l/m$^2$ de Barazar. El día 13 destaca por las abundantes precipitaciones registradas, acumulándose un total de 87 l/m$^2$ en Aitzu (valor máximo registrado). Del mismo modo, se producen abundantes precipitaciones durante el día 9, en especial en Alava y Bizkaia, siendo de nieve en cotas muy bajas, registrándose hasta 62 l/m$^2$ en Barazar y 40 l/m$^2$ en Zambrana.

Las temperaturas medias son 2-3 ºC inferiores a lo normal en todas las áreas. La temperatura media en la vertiente cántabrica está entre 8–10ºC y de 5 ºC en la Llanada Alavesa. Se producen heladas débiles en el interior de Bizkaia y Gipuzkoa, y moderadas en puntos de Alava y de montaña, destacando los –6,2 ºC en Kapildui el día 10, donde además se registran 19 días de heladas.

Los vientos son, en general, de componente norte, predominando los vientos flojos y encalmados, más intensos en áreas de montaña y costa, donde se registran rachas máximas de componente N, llegando a 128 km/h en Zarautz el día 14 y 123 km/h en Punta Galea el día 9.

Los caudales de los ríos son altos como consecuencia de las abundantes lluvias; sin embargo, no se ha llegado en ningún caso a situaciones de alerta debido a crecidas. Los niveles máximos se alcanzan en todas las estaciones los días 13 y 14.

## AZAROA

Aire polarrak etengabe sartzen zirenez, azaroan negu beteko ezaugarriak nagusitu ziren. Atlantiko iparraldean kokaturiko antizikloi batek N eta E jobideko haizeak ekarri zituen, eta horrek atmosferaren goialdean sortzen ziren aire polarraren poltsekin batera prezipitazio asko eragin zituen; hilaren erdialdera prezipitazio horiek elurretan bota zituen kostatik gertuko kotetan.

Azaroa normala baino euritsuagoa izan zen leku guztietan, eta euri asko egin zuen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoako mendialdean; aipatu beharrekoak dira Aitzun jasotako 261 l/m$^2$ edo Barazarko 249 l/m$^2$. Hilaren 13an ikaragarri egin zuen euritan, eta Aitzun (erregistraturiko gehieneko balioa) 87 l/m$^2$ pilatu ziren. Era berean, hilaren 9an ere euri asko egin zuen, batez ere Araban eta Bizkaian, (kota oso baxuetan gainera, elurretan): Barazarren 62 l/m$^2$ jaso zituzten eta Zambranan 40 l/m$^2$.

Batez besteko tenperaturak normala baino 2-3 ºC beheragotik ibili ziren leku guztietan. Kantaurialdeko batez besteko tenperatura 8–10 ºC-koa izan zen eta Arabako Lautadakoa 5 ºC-koa. Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdean izotz txikiak izan ziren eta Arabako zenbait lekutan eta mendialdean handixeagoak. Nabarmendu beharra dago Kapilduin hilaren 10ean -6,2 ºC izan zutela, eta gainera, hil osoan 19 egunetan egin zuela izotza.

Haizeak, oro har, iparraldetik jo zuen; haize arinak eta barealdiak ziren nagusi, nahiz eta mendialdean eta kostan indar gehiagoz jo. Inguru horietan erregistratu ziren abiadura handieneko ipar-haizeak, 128 km/h Zarautzen hilaren 14an eta 123 km/h Galean hilaren 9an.

Ibaien emariak altuak izan ziren euri asko izan baitzen azaroan; nolanahi ere, ezein momentuan ez zen ibaiak handituta zetozelako larrialdirik izan. Estazio guztietan hilaren 13an eta 14an iritsi zen ura mailarik altuenera.

DICIEMBRE

Durante la primera mitad del mes, un anticiclón centrado primero sobre la Península Ibérica y posteriormente sobre Centroeuropa, determina un tiempo suave y soleado con predominio de vientos del SE o encalmados. A mediados de mes, una invasión de aire continental muy frío y seco penetra desde el este de Europa y se perpetúa hasta finales, ocasionando una importante ola de frío. En estas condiciones diciembre resulta un mes frío y seco, especialmente en Alava.

Las precipitaciones son escasas, resaltando los 60 l/m$^2$ recogidos en Mungia como valor más alto y valores inferiores a 10 l/m$^2$ en muchas localidades de Alava. Las precipitaciones se producen principalmente a final de mes cuando masas de aire atlántico húmedo y templado logran alcanzar la Península. En este punto debemos resaltar el episodio de lluvia helada ocurrido el día 26, situación en la que la lluvia producida por un frente atlántico en contacto con el suelo helado se congeló, provocando graves problemas por el hielo.

Las temperaturas medias del mes resultan ser 4 ºC inferiores a las normales en todo el territorio, estando próximas a 0-1ºC en puntos de la Llanada Alavesa y entre 4 y 7º C en la vertiente cantábrica. El número de días de helada es superior a 20 en Alava e interior de Bizkaia y Gipuzkoa. Las heladas registradas en Alava y puntos de montaña son intensas, alcanzándose repetidamente temperaturas inferiores a –10 ºC, con una mínima absoluta de –14,8 ºC en Navarrete.

Los vientos son en general flojos, más intensos en áreas de montaña y del litoral predominando la componente E. El día 10 se producen rachas muy fuertes de viento de dirección E-SE en áreas de montaña, destacando Navarrete con 91 km/h.

La escasez de precipitaciones se refleja en los bajos caudales de los ríos en especial en Gipuzkoa, los más bajos de los últimos diez años. Los caudales máximos se alcanzan el día 30 en prácticamente todas las estaciones de aforo debido a las precipitaciones registradas a finales de mes, aunque en ninguna de ellas se llega a niveles significativos.

## ABENDUA

Hilaren lehenengo erdialdean, hasieran penintsula iberiarraren gainean antizikloi bat ageri da, eta ondoren Europa erdialderantz mugitzen da eguraldi atsegina eta eguzkitsua ekarriz, SE jobideko haize eta barealdien laguntzarekin. Hilaren erdialdera, ordea, kontinenteko aire oso hotz eta lehorraren inbasio bat iritsi zen Europa ekialdetik eta hilaren amaiera aldera arte bertan geratu zen, hotz-bolada latza eraginez.

Prezipitazioak urriak dira; baliorik altuena Mungian jaso zuten, 60 $l/m^2$, baina Arabako herri askotan 10 $l/m^2$ baino gutxiago. Prezipitazio gehienak hilaren amaieran izan ziren, Atlantiko aldeko aire-masa hezea eta epelak penintsulara iristi zirenean. Ildo horretatik aipatzekoa da hilaren 26an egindako euri izozkorra: Atlantikoko fronte batek eragindako euria lurzoruarekin talka egin orduko izoztu egin zen, eta izotz horrek arazo larriak eragin zituen.

Hileko batez besteko tenperaturak normala baino 4 ºC baxuagoak izan dira lurralde osoan; Arabako Lautadan 0-1ºC-ren bueltan, eta kantaurialdean 4 eta 7º bitartean. Izozte-egunak 20 baino gehiago izan ziren Araban, eta Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdean. Araban eta mendi-partean erregistraturiko izotzak handiak dira, eta behin eta berriro –10 ºC-tik behera jaisten da termometroa, minimo absolutua Navarreten jo zuelarik, –14,8 ºC-rekin.

Haizeak, oro har, arinak dira, mendialdean eta kostan indartsuagoak, eta E jobidekoak gailentzen dira. Abenduaren 10ean E-SE jobideko haize-parrasta oso gogorrak ibili ziren mendi inguruetan, eta Navarreten 91 km/h-ko abiadura hartu zuen.

Prezipitazio urriak ibaien emari eskaxetan islatzen dira, batez ere Gipuzkoan, azken hamar urteotako baxuenak izan baitira. Emari altuenak ia estazio guztietan hilaren 30ean erdietsi ziren, hilaren amaieran izandako prezipitazioengatik, baina ezein kasutan ez zen maila esanguratsuetara iritsi.